

opusdei.org

Gurasoak dira beren seme-alabak hazteko eskubidea duten bakarrak

Amaia Segovia, Donostiako
Eskibel Ikastetxeko irakasleari,
HLOri buruz egindako
elkarrizketa

2005 Aza 27

**Irakasle bezala, nori eragiten dio
gehiago HLOk, ikasle edo
irakasleei?**

Ukaezina da bi taldeetan izango duen eragina. Ikasleek errazago izango dute esfortzu handirik gabe kurtsoak gainditzea. Irakasleek, ordea, zailagoa ikasleak motibatu eta beraien autoritatea geletan erabiltzea. Ikusten denez, galerak handiak izango dira guztiontzat.

Zertan Heziketa Estatuaren esku uztearen beldurra?

Gurasoak dira beren seme-alabak hazteko eskubidea duten bakarrak. Estatua, beraz, laguntzaile gisa suertatzen da gizartean. Hori ez egitearen arriskua argi dago: denek izango dute tratamendu bera, bakoitzaren nortasuna eta beren gurasoen asmoak kontuan izan gabe. Horrek benetako askatasuna murrizten du, baloreetan oinarritutako heziketa emateko orduan, gurasoak baitira oinarritzat hartuko diren balore horiek zeintzuk diren aukeratu behar dituztenak.

Estatuari ez dagokio asmo horiek aurrera eramateko baliabideak eskura jartzea baino.

Egunero ari zara ikasgeletan, norantz bideratuko zenuke heziketa sistemaren erreforma?

Dударик gabe, esfortzuaren balioa eta guraso eta irakasleen autoritatearen berreskurapenerantz. Gaurko gizartean errazegi lortzen dugu dena, azkarregi goaz. Balio handiko gauzak ez dira ahalegin eta lan askorik gabe lortzen. Azkarregi lortzen dena, azkarregi bukatzen da, ez da iraunkorra. Eta edozein pertsonak, oinarri iraunkor eta sendo bat behar du bere bizitzarako. Hori ez da egun batetik bestera lortzen, txikitatik baino.

Zein da zure iritzia Hiritartasunerako Heziketa irakasgaiari buruz?

Pertsonek gu gainditzen gaituen
zerbait edo norbaitenganako
sinesmena behar dugu. Horrek
laguntzen gaitu gure ekintza guztiak
beste ikuspuntutik begiratzera.
Horrek egingo gaitu hiritar onak
izatea. Ezin da edozein lege onartu,
are gehiago pertsona beraren kontra
badoa eta zer esanik ez, gure
barnean daramagun lege natural
horren aurka badoa. Irakasgai berri
honen bidez sinestarazi nahi omen
digute, gure bizitza gidatzen dutenak
Estatuak eta beren erakundeek
ezartzen dituzten legeak direla. Eta
hori ezin da onartu.

.....